

ZUZEN EKINTZA TALDEA. Espainiako hedabideen jarrera salatu dute

«Muga informatibo asko hautsi ditugu Bartzelonan»

Zuzen Ekintza Taldeak gailurreko gertaeren balorazioa egin du

Nagore Rodriguez | DONOSTIA

«Dispersioa salatzen eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko» Bartzelonan izan dira Zuzen ekintza taldeko kideak, Europako Batasuneko goi bilera egin den egunetan.

Aldarrikapen horiek eskatzeko egindako ekintzak «oso baikorrak» izan direla esan zuten atzo Zuzen taldeko kideek, Donostian egindako agerraldian: «Bi ekintzetan jende ugari elkartu da eta nazioarteko hedabide askori Euskal Herriko egoera horien berri eman diegu, muga informatibo asko hautsi ditugu».

Ostiralean egin zuten lehen ekintza euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz, auto istripu bat antzestu zuten. Larunbatean, Zuzen sound system musika kamioiak autodeterminazio eskubidea eskatu zuten.

Mikel Arrieta euskal presoaren gurasoek hartu zuten parte ostiraleko ekintzan. Poliziak senideak eta Zuzen taldeko lau kide atxilotu zituen.

Espainiako hedabideek izan duten jarrera salatu zuten atzo Zuzeneko kideek, «frogarik gabe hainbat gauza esan ditu Poliziak, eta hedabide askok egiaztatu gabe argitaratu dute».

Mikel Arrietaren gurasoek, atxilotuta igaro dituzten 3 egunetan jaso duten tratua salatu zuten, «ekitaldi baketsu bat egi-teagatik atxilotu gaituzte, urik gabe egon gara ia eta lurrean lo



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Zuzen ekintza taldeko kideak eta Mikel Arrieta presoaren gurasoak.

egin behar izan dugu. Hala ere, oso gustura gaude egin dugunarekin, hemengo arazoa kanpora zabaltzea lortu dugulako».

Epaiketa Algecirasen

1999an Algecirasko espetxean egindako ekintza batengatik 7

lagun epaituko dituzte gaur. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eta dispersioa bukatzeko eskaera egin zuten Algecirasko espetxean. Fiskalak 10 hilabeteko kartzela zigorra eta ustez eragindako kalte materialak ordaintzeko eskatu du.

ERREFUXIATUAK. Askatasunak euskaldunen eskubideak bermatzea eskatu du

Lau euskal errefuxiatu eta beste bi lagun deklaratzera deitu dituzte Uruguain

Erredakzioa | DONOSTIA

Josu Lariz, Pedro Gomez, Amaia Arakistain eta Mikel Ibañez euskal errefuxiatuak, eta hauekin batera Eduardo Santibañez Elkartasun Komiteko kidea eta 84 urteko azken honen ama, deklaratzera deitu ditu Uruguaiako Montevideoko Epaitegiak, atzo Askatasunak prentsa ohar baten bidez jakinarazi zuenez.

Iragan azaroaren 13an Udaltzako Batzorde Eragileko Xarlo Etxezarreta eta Loren Arkotxa atxilotu zituzten euskal diasporarekin harremanetan jartzeko asmoz Uruguain sartu zirenean ustez «agiri faltsuak» eramateagatik.

Bi lagun hauek ordu batzuen buruan askatu arren, Josu Lariz atxilotu egin zuten, «operazio polizial osoa justifikatzeko», Askatasunak salatu duenez.

Abenduaren 21ean lortu zuten Larizek behin-behineko askatasuna.

Askatasunaren esanetan, deklaratzeko deialdi berri hau «iragan azaroko atxiloteten ondotik irekitako prozedura judicialaren ondorioa da». Baina ez dakite lekuko gisa edo inputatu gisa deitu dituzten deklaratzera.

«Muntaia faltsuen ondorioak» ez ditzala Uruguaiako euskal errefuxiatuak eta haien lagun eta senideak kaltetu, eta «euskaldunen aurkako kriminalizazioarekin amaitzeko» eskatu dio Askatasunak Uruguaiako agintaritzari.

LAGURREAN**Joxean Astigarraga gazteari urtebeteko espetxe zigorra ezartzea adostu dute fiskalak eta abokatuak**

Joxean Astigarraga gaztea epaitu zuten atzo Madrilgo Penal arloko Epaitegian. Prozesamendu autoan fiskalak hilketa saioa egotzi zion, baina atzo, epaiketari, akusazioa aldatu zuen eta, hala, desordena publikoa leporatu zion. Hortaz, Astigarragari urtebeteko espetxe zigorra ezartzea adostu zuten fiskalak eta bere abokatuak. Zigorra bertan behera geldituko litzateke hiru urteren buruan delituri egingo ez balu. Gazte donostiarra 2001eko martxoaren 9an atxilotu zuen Ertzaintzak Donostian manifestazio baten ondoren ertzainekin izandako liskarretan. Sei hilabete kartzelan igaro ondoren, 2001eko urriaren 26an aske gelditu zen 3.005 euroko bermepean.

Eusko Jaurlaritzak bulego berria irekiko du Mexikon

Eusko Jaurlaritzak atzo Mexikon ordezkaritza berria irekitzeko lege dekretua onartu zuen. Helburua Mexiko eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko «harremanak sendotzea da». Josu Jon Imaz Jaurlaritzako bozeramailearen esanetan, EAEk «politika integral baten beharra du Europar eta mundu osoan Euskadiko irudia indartzuz, interes ekonomiko eta politikoak bermatzeko».

Segik eta Batasunak FNren kontrako elkarretaratzera deitzen du gaur Angelun

Hauteskunde kanpainaren kariatara Fronte Nazionalak (FN) gaur Angelun antolatuko duen ekitaldia salatu du Segi erakundeak «gorrotoaren alderdiak zabaltzen dituen ideia faxistak deitoratzeko». Elkarretaratzera 17:45etan burutuko da Angelun, N10 errepidearen eta Agilerako errepidearen bidegurutzean. Batasunak atxikimendua adierazi dio Segiren deia.

Suitzako Poliziak Gabriela Kance, Benjamin Ramos euskal preso ohiaren neska-laguna atxilotu du

Suitzako Poliziak Gabriela Kance alemaniarra atxilotu du Alemania eta Suitzaren arteko mugan, Espainiako Auzitegi Nazionalaren nazioarteko atxiloketa aginduari men eginez. Benjamin Ramos euskal preso ohiaren neska-laguna da Kance. Ramos kalean dago behin-behinean gaixotasun sendaezina duelako. Ramosen estradizio prozesua eman zenean, Alemaniak ez zuen Kance estraditatu alemaniar naziotasuna zuelako.

Diruak ez dezala ekintza zuzena gelditu...



Laguntza ekonomikorako kontu zebakia
3035 0065 76 065.1.04903.0
www.zuzen.org